



## **BITARTEKARITZA PROIEKTUAK DEIALDIAREN EBAZPENA**

2024ko apirilaren 30ean, *Bitartekaritza proiektuak* egonaldi-deialdia argitaratu zen Tabakaleraren webgunean, Hezkuntza arloaren bidez, bitartekaritza kokatuko prozesu esanguratsuen eta bitartekaritzaren arloko ikerketa diskurtsibo eta metodologikoen garapena babestu eta sostengatzeko helburuarekin.

Aipatutako oinarrien 5. atalean aurreikusitakoarekin bat etorritik, batzorde bat eratu zen, Clara Montero Tellecheak (Tabakalera CICCKo Kultur zuzendaria), Betisa Ojanguren San Millánek, (Huarte zentruko Hezkuntza arduraduna), Nerea Hernandez Sernak (Tabakalera CICCKo Hezkuntza koordinatzailea) eta Itziar Imaz Ganzarainek (Tabakalera CICCKo Hezkuntza arduraduna) osatua, deialdia osatzen duten alderdiak baloratzeko.

Batzordeak garaiz eta behar bezala aurkeztutako proiektuen balorazioa egin du, egonaldia lortu nahi duten proiektuak hautatzeko oinarrietan ezarritako irizpideekin bat etorritik, eta CICC/Tabakalerako zuzendari nagusiak, aipatutako batzordeak proposatuta, honako hau

### **EBATZI DU:**

**Lehenengoa.-** I. eranskineko taulan zerrendatutako pertsonen *Bitartekaritza proiektuak* deialdian parte hartzeko aurkeztutako proiektuak hautatzea, deialdiaren oinarrietan jasotako baldintzetan.

**Bigarrena.-** Hautatutako proiektu bakoitzari ondorego laguntzak ematea:

#### **1. Bitartekaritza-prozesuko egonaldia**

1. 10.000 € gehi dagokion BEZa, ordainsari gisa, eta faktura bidez ordainduta. Zenbateko horri egoiliar bakoitzaren egoera fiskalaren arabera atxikipena aplikatuko zaio. Horretarako, dagokion dokumentazioa eskatuko da.

2. 4.000 euroko partida (zergak eta atxikipenak kanpo), ekoizpen-gastuetarako eta prozesuari lotutako beste gastu batzuetarako. Zenbateko hori ere faktura bidez ordainduko da, aurrekontua aurkeztu ondoren. Horretarako, dagokion dokumentazioa eskatuko da. Egonaldiak ez du ostaturik barne hartzen.

#### **2. Bitartekaritzako ikerketa-egonaldia**

1. 4.000 € gehi dagokion BEZa, ordainsari gisa, eta faktura bidez ordainduta. Zenbateko horri egoiliar bakoitzaren egoera fiskalaren arabera atxikipena aplikatuko zaio. Horretarako, dagokion dokumentazioa eskatuko da.

2. 1.500 €-ko partida bat (zergak eta atxikipenak kanpo) ekoizpen-gastuetarako eta prozesuari lotutako beste gastu batzuetarako, besteak beste joan-etorrietarako, dietetarako, etab. Zenbateko hori ere faktura bidez ordainduko da, alde aurretik aurrekontu bat aurkeztuta. Egonaldiak ez du ostaturik barne hartzen.



Bi modalitateetarako:

3. Lan-eremua Tabakalerako artisten gunean, oinarrizko altzariez, korrante elektrikoko harguneaz eta argiztapenez hornitua.
4. Sarbidea officera eta partekatzen diren espazioetara.
5. Sarbidea Tabakalerako sorkuntzako liburutegi espezializatuaren funtsetara eta Medialabeko baliabideetara.
6. Sarbidea irudiak eta soinua editatzeko estudioetara, platora edo praktika eszenikoetarako espaziora, eta maileguan hartutako ikus-entzunezko baliabideetara.
7. Baliabide teknikoak eta laguntza Tabakalerako taldearen aldetik, beharren eta prestasunaren arabera.
8. Laguntza kontzeptuala proiektuaren garapenean Hezkuntza arloaren aldetik, eta testuinguruko eragileei eta proiektuei aurkezteko laguntza, egoiliarak hala eskatuta.

**Hirugarrena.**- Ebazpen hau Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, S.A.ren webgunean argitaratzea eta aukeratuei jakinaraztea.

Donostian, 2024ko ekainaren 24a

Edurne Ormazabal Azpiroz  
Zuzendari nagusia



## ANEXO I

<i>Modalitatea</i>	<i>Izena</i>	<i>Abizenak</i>
<b>1. BITARTEKARITZA PROZESUKO EGONALDIA</b>	ALBA	FERNANDEZ GONZALEZ
<b>2. BITARTEKARITZAKO IKERKETA-EGONALDIA</b>	MIREN	BAYONA ESPINOSA